

Agenda

Alberto Palomera ◊ Artista

‘Uliseonista’ izenburuarekin, izaki garaikidearen inguruko hausnarketa zintzilikatu du argazkilari eta margolari barakaldarrak Zarautzen. Bera protagonista dituen erretratu ironikoak dira.

«Artelan gehiegi dago, eta asko oso hutsik, artistek ez dutelako arriskatzan»

Edu Lartzaguren

Alberto Palomerak (Barakaldo, 1962) argazkigintza, pintura, eskultura eta beste hainbat alor-jorratzen ditu. Margolari zuen aita, eta etxean zein EHUn ikasi zuen berak arte ederrak. Gizaki garaikidearen odisearen inguruko *Uliseonista* argazki erakusketa du jarrita Zarauzko Photomuseumean (Gipuzkoa), otsailaren 14a arte. Bere buruari eginiko erretratuak dira: batzuetan biluzik agertzen da, baina beti kaskoa buruan.

Zergatik ‘Uliseonista’ izenburua argazki sail honentzat?

Neronek asmatu izena da, hiru hitzetan oinarrituta: *Ulises*, Homeroren *Odisea*-ko protagonistaren izen latinoa; *Odiseo*, haren izen greziarra; eta *ilusionista*, argazkiak egin nituen garaian ematen ari ziren filmetik hartua. Izan ere, Ulises, amarruaren maiztutza dute, ziklopearen eta beste hainbaten engainatzailea izan zelako.

Artista gisa, engainatzailetzat duzu zeure burua?

Artista guztiak dira engainatzaileak. Ilusionistak gara, lilura sortzen dugulako. Irudiak botereak izatea nahi dut, sorginduriko objektuak balira bezala. Ulisesek bidaia egin zuen sorterrira itzultzeko. Nik bidaia egin nahi dut, baina itzultzeko. Bidaia kritikoa da gizaki garaikidearekin, ironikoa, umore apur batekin. Argazkiek hainbat interpretazio dituzte. Argazkietako protagonistak maskara erabiltzen dut; ezin du kendu. Traje gorbataiduna erabiltzen du, botere ikur gisa, baina maskara ezin du kendu. Genero indarkeria kritikatzan da argazkietan, hutsalkeria eta alferkeria.

Zergatik erretratatzan duzu zeure burua?

Asko kostatzen zaidalako modelo bati esatea hartzeko nik islatu nahi dudana jarrera. Saiatu naiz, baina oso nekagarria zait. Zer nahi dudana badakidanez, askoz errazagoa zait neronek adieraztea: jarrera alferria, erasokorra edo barregarria. Estudioko argazkiak dira, eta horietan garrantzitsuena da argia eta pertsonaiaren



ALBERTO PALOMERA

jarrera. Sail bat Apeles antzinatoko margolariari eskaini diot: biluzik nago, zapi bat gorabehera. Margolariaren astoa arma gisa erabiltzen dut. Azkenean, oihalean gurutziltzaten naiz, sorkuntza eta artearekiko fede ekintza gisa; azken batean, soilik horretan sinesten dudalako.

«Oihalean gurutziltzaten naiz, soilik artean sinesten dudalako»

Zuk antzeztan eta erretratatzan duzun Ulises hori ez da soilik Homerorena, baita James Joycerena ere.

Gizaki modernoaren inguruko hausnarketa baina, gizaki garaikidearen inguruko da; azken hori, are suntsituagoa dago. Hutsal-

keria asko dago, artelan gehiegi, asko oso hutsik. Arteak emozioz beterik egon behar du, bestela hutsik dago. Erakusketak askotara sartzen naiz, baina azkar egiten dut alde.

Galerien eta museoen paradisua dirudien Bilbon bizita, ez al da larria zuri hori gertatzea?

Gauza ugari dago ikusteko museo eta galerietan, baina askok ez dute funtzionatzen, ez hemen eta eta beste inon. Eta ez nabil amateurraren gauzez, baizik eta profesional askoren lanez. Artistek ez dute arriskatzan. Erakusketetara sartu eta saiatzen naiz biluzten, gelditzen, zer esaten didaten entzuten, baina gauza askok ez dida ezertxo ere esaten. Erdipurdikeria asko dago. Horregatik esaten dut gizaki garaikidea desegindagoela.

→ Ekitaldiak

Musika

- **Arrasate.** Sociedad Alkoholika. Gaur, 23:00etan, 3 aretoan.
- **Arrasate.** Subversion X eta Txapelpunk. Bihar, 22:00etan, 3 aretoan.
- **Azkoitia.** Deabruak teilatuetan. Bihar, 22:30ean, Matadeixen.
- **Azpeitia.** Doubling boys, The last strength eta Strikers. Gaur, 22:00etan, gaztetxean.
- **Barakaldo.** Yo soy Julio Cesar eta Pleonakis Plektos. Gaur, 22:00etan, Edaska aretoan.
- **Barakaldo.** *Los gavilanes* zartzueta. Igandean, 19:00etan, Barakaldo antzerkian.
- **Basauri.** Javier Krahe. Gaur, 20:30ean, Social antzokian.
- **Bera.** Caligula. Bihar, 22:00etan, Katakua ostatuan.
- **Bilbo.** Lehendakaris muertos eta Memo. Gaur, 21:30ean, Kafe Antzokian.
- **Bilbo.** Tulsa eta The fake-band. Gaur, 21:00etan, Azkena aretoan.
- **Bilbo.** Hamlet eta Infernoise. Bihar, 21:00etan, Kafe Antzokian.
- **Bilbo.** Him. Bihar, 21:00etan, Azkena aretoan.
- **Bilbo.** Xabier Lete eta Joxan Goikoetxea, poesia eta musika emanaldia. Asteartean, 20:00etan, Arriaga Antzokian.
- **Donaxiti.** MKT, Kalegines eta Mikel Hats. Gaur, 22:00etan, Bota gaztetxean.
- **Donostia.** Boogie van, Cocogaguas eta Nueva consecuencia planetaria. Bihar, 22:00etan, Mogambo aretoan.
- **Donostia.** Deabruak teilatuetan eta Colemans. Gaur, 20:30ean, Doka kafe antzokian.
- **Donostia.** Kakahuete eta Fitterhappier. Bihar, 21:00etan, Urgullgo Guardetxean.
- **Donostia.** Alex Ubago. Bihar, 21:00etan, Victoria Eugenia.
- **Durango.** Biok eta Muted. Gaur, 22:00etan, Plateruenea kafe antzokian.
- **Elgoibar.** Napoka Iria. Gaur, 22:30ean, Toletxe tabernan.
- **Elorrio.** Gora Japon eta Murgeseo. Gaur, 22:30ean, Ateneoan.
- **Elorrio.** *Los gavilanes* zartzueta. Bihar, 19:00etan, Arriola aretoan.
- **Gasteiz.** Betagarri. Bihar, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.
- **Gasteiz.** Acapulco Gold Diggers. Gaur, 21:30ean, Montehermoso Kultur Zentroan.
- **Gasteiz.** Alex El Hierro eta Inigo Crines. Asteartean, 20:30ean, Parral tabernan.
- **Gernika-Lumo.** Piztiak eta El desvan del macho. Bihar, 21:30ean, Trinketen.

- **Gernika-Lumo.** The extended plays. Bihar, 19:00etan, Gernikako gaztetxean.
- **Getxo.** Krimen y Kastigo, Vinaigre de Sidra eta Sin Pegas. Bihar, 20:00etan, Itzumbaltzeta gaztetxean.
- **Hondarribia.** Jon Miner & Intxisu Lotien Banda. Gaur, 23:00etan, Banako aretoan.
- **Irun.** Txorimaloak akordeoi taldearen kontzertua. Bihar, 20:00etan, Amaia KZ-n.
- **Iruñea.** Sin direccion bandaren emanaldia. Gaur, 22:00etan, Infernu tabernan.
- **Oñati.** Mahaster River eta Sorkun. Gaur, 22:00etan, gaztelekuan.
- **Soraluze.** Plan B, Los cretinis eta Peachy Joke. Gaur, 22:00etan, gaztetxean.
- **Tolosa.** Gari. Gaur, 22:30ean, Bonberenean.
- **Tolosa.** Biok. Bihar, 22:30ean, Bonberenea kafe antzokian.
- **Trintxerpe.** Cococoma eta Las Sfinsters. Igandean, 18:30ean, Mogambo aretoan.
- **Urruña.** Root System. Gaur, Pausuko Xaia ostatuan.
- **Zarautz.** From Lost to the River eta Ghetto. Gaur, 22:30ean, Arrano tabernan.
- **Zornotza.** Storbais eta Titadine. Bihar, 22:00etan, Idabamusi aretoan.

Antzerkia

- **Arrigorriaga.** *Ezker-eskuma*. Gaur, 20:00etan, Lonbon.
- **Barakaldo.** *El pez gordo*. Gaur eta bihar, 20:00etan, Barakaldo antzokian.
- **Bergara.** *ProtAgonizo*. Gaur, 22:30ean, Zabalotegi aretoan.
- **Bergara.** *Prest gaude*. Bihar, 20:00etan, Zabalotegi aretoan.
- **Donostia.** *Kanpanilla eta Pelter Panen itzala* haurrentzako antzezlan. Bihar, 18:00etan, Altza kultur etxean.
- **Donostia.** *Ogiyik ekarri etzun semia*. Igandean, 19:30ean, Doks kafe antzokian.
- **Durango.** *Decir lluvia y que llueva*. Bihar, 20:00etan, San Agustín kultur gunean.
- **Irun.** *Yo seré el number one* antzezlan, Matxin konpainiarekin. Gaur, 23:00etan, Irun kafetegian.
- **Zarautz.** *Inalanbrikak*. Bihar, 17:30ean, zinema pilotalekuan.
- **Zornotza.** *Uharte ezezaguna* haurrentzako antzezlan. Gaur, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Dantza

- **Bilbo.** *Ekialdeko dantza*. Igandean, 19:30ean, Bilbrocken.